

ESKOLA KIROLA:

GURASO ARDURADUNAK, GARRAIOA ETA ARGIBIDEAK

Guraso arduradunak :

Begiratu zuen txandak guraso arduradunen zerrendetan.

Guraso batek, tokatzen zaion egunean ezin badu arduradun lanetan jardun, mesedez, adostu beste gurasoren batekin txanda aldatzeko; hots, aldaketa hori guraso arduradunen esku geratzen da.

Ikasle batek ezin badu kirol partidura joan edo bueltatzeko beste pertsona batekin geratzen bada, mesedez, abisatu guraso arduradunei, bere zain ez egoteko.

Partidu batzutan gurasoek monitore lana egin beharko dute, hauek partidu guztietara joaterik ez dutelako.

Garraioa:

Guraso arduradunek, ikasle- taldearen ardura izango dute, bai garraioan baita partiduan ere, dagokien txandan eta taldean

Arduradunek , beste partaidekin adostuta, garraioa, gelditzeko ordua eta ordutegia antolatuko dituzte.

Eskolako garraioa publikoa izango da. Batzutan autobus pribatua erabiliko dugu; kasu hauetan, aldeztu aurretik, eskolak ikasleei abisua emango die.

Argibideak:

GURASO ARDURADUNEI asteburuko kirol informazio orria emango zaie.

3. ETA 4. MAILAKO IKASLEEK ESKOLAKO AGENDAN asteburuko kirol informazioa eramango dute.

Eskolako sarrerako KIROL IRAGARKI TAULAN asteburuko kirol informazioa jarriko da.

Eskolako web orrian ITURZAETA.NET Kirol informazioa jarriko da.